

9. PROKLAMA

Lantegien eta topaketen programa

LAB_REC: ¿IN-QUIETA O IN-QUIETO?

Olga Mesak eta Francisco Ruiz de Infantek (Hors Champ // Fuera de Campo konpainia) proposatutako laborategia

Artista gonbidatuak: Ane Guria eta Claire Serres

Artium, Plaza aretoa

Otsailaren 18an eta 19an, 16:00etatik 21:00etara

Otsailaren 20tik 24ra, 18:00etatik 24:00etara

Argibideak eta izen-ematea: proklamar@gmail.com (toki mugatua)

21. TABLAOA: RESISTENCIAS → FROTAMIENTOS → MAGNETIMOS... Y VICEVERSA Olga Mesa-ren eta Francisco Ruiz de Infante-ren hitzaldi performatibo txit ilustratua

Artium, Emanaldi aretoa, doako jarduera

Otsailaren 23an, 19:00etan

CARMEN // SHAKESPEARE: LEHEN EKITALDIA (LAINOARENA)

Olga Mesaren eta Francisco Ruiz de Infanteren ikuskizun koreografiko, ikus-entzunezko eta plastikoa

Artium, Ekialde-Goikoa aretoa, doako jarduera

Otsailaren 24an, 19:00etan

CABARET DEL PRECIPICIO (UNDER PRESSURE)

Esperientzia performatibo jai-girokoa, LAB_Rec-en parte-hartzaileekin batera proposatua + artista gonbidatuak

Artium, Plaza aretoa, doako jarduera

Otsailaren 24an, 20:15etik aurrera



9. Proklama honekin lantegi- eta topaketa-programarekin jarraituko dugu Vitoria-Gasteizen, eta galdera honetara itzuliko gara: «Gu, herria, zein neurritan da ariketa performatibo bat?». Galdera honek Judith Butler-en «Gu, herria». Bilera-askatasunaren inguruko gogoetak testuan du jatorria. Behin eta berriz aipatu dugu testu hori aurreko edizioetan. **Bederatzigarren edizio** honetarako... Sar eta ikus; barruan dago askatasuna! Oraingo honetan Olga Mesa eta Francisco Ruiz de Infante ekarri ditugu delituaren gorputzari –hobenaren gorputzari– hel egitera. Egun gutxi baina egitekoz betetako horietan beren *Carmen// Shakespeare** konstelazio labirintikoaren hainbat aurpegi erakutsiko digute. Lau urte baino gehiago daramate ikus-entzunezko egitasmo plastiko eta performatibo hori prestatzen, giza-harremanen begiztako hainbat arketiporen inguruan (sedukzioa, gatazka, noraeza, gainbehera, heriotza...).

Lab_Rec (atzemateko laborategia) *Carmen // Shakespeare* proiektuarekin lotutako sortzeko eta esperimentatzeko lantegi sail bat da. Bertan, Olga Mesak eta Francisco Ruiz de Infantek gorputza (haren oroimena, presentzia eta teknologiaren bidez handiagotzea) abiapuntu harturik sortzen ari diren ikerketa-tresnak partekatu, bizkortu eta testuinguruan kokatu dituzte. **Lab_Rec: ¿IN-quieta o IN-quieto?** ekintzarekin «talde-oroimen» bat sortzen saiatuko dira denbora errekorrean, «beharrezko hutsegiteak, lapsusak, asmatzeak eta intuizio zikinak» elkarrekin esperimentatu ahal izateko. Han, hiztegi artistikoek eta lan-metodoek elkar igurtziko dute era guztietako alorretan: performancea, bideoa, musika, literatura, instalazioa eta soinua. ¿IN-quieta o IN-quieto?-n IN delakoaren eta OUT delakoaren artean dar-darrean dauden lainoek uhertutako paisaia batzuk ere arakatuko dira, eta handituko eta tradituko gaituzten «erreferente eragile» batzuk eta «tranpa-gailu» batzuk bizkortuko dira (kamerak, mikrofonoak, zelula hartzaileak, begiradak, ispiluak, argiak, itzalak...). Hobeto ikustea? Hobeto entzutea? Seguru asko, beste era batera eta beste kontzientzia batekin ikustea eta entzutea. OUT egotea? IN egotea? IN-quieto? IN-quieta? Seguru asko, mugimenduan. Lantegi-laborategi hau artista, musikari, arte ikasle, idazle, eszenografo, antzezle, performancegile, dantzari, antzerkilari eta abarri zuzenduta dago. Gorputzaren bidez (haren irudia, itzala, soinua eta errainua) espazio-denborazko narrazio berriak esperimentatu nahi dituzten guztiei.

Cabaret del Precipicio (under pressure). 9. Proklama honen Lab_Rec delakoa hiru denboratan antolatuko da: 1. Partekatzea (ezagutza, esperientziak, nahiak); 2. Proiektatzea (gailuak, testuinguruak, joko-arauak) eta 3. Egiaztatzea (irudikatutakoaren eta benetakoaren arteko tartea). Jai-giroko ekitaldi publiko bat antolatu eta burutzea izango da lantegiaren zati handi bat, «Kabaret» modu posibleetako bat berrinterpretatuko duena. Ekitaldi horretan, Lab_Rec-en bizkortutako forma eta energetako batzuk partekatuko dira, arriskua geure gain hartzen saiatuko gara modu burrunbatsuan erori gabe (ala eroriz?).

21. Tabloa. Tabloa saileko hitzaldi performatiboen bidez, denbora-tarte aldi berean ikusgarri eta hauskorra proposatzen digute Mesak eta Infantek, beren *Carmen // Shakespeare* proiektuko sortze-prozesuetako ikuskari, interpretazio eta tirabiren barruraino bidaiatzeko. Oraingo «tabloa» honetan (2013an hasitako saileko 21.a) Proklamarako propio sortutako ikus-entzunezko gailu sofistikatu batek aukera emango du «gorren arteko elkarrizketa txit ilustratuak» sortzeko, hiztegiak gurutzatzeko, proiektu orokorrean giltzarri diren erreferentzia batzuk «esnifatzeko» eta errealitatea eta fikzioa bereizten dituen lur-zerrendan (oso, oso irristakorrean) astiro sartzeko.

Olga Mesa koreografoa eta ikusizko artista da, eta dantza garaikidearen irudi garrantzitsuenetako bat Espainian. 1990eko hamarkadan hasi zen intimitate-egoera baten irudikapenean oinarritutako gorputz-idazkera bat garatzen, adierazpena, pertzepzioa eta analisisa elkartuz.

Ikusizko arteak esperimentazioan oinarriturik eszenara eramateagatik nabarmentzen da haren lana, eta zinemaren eta literaturaren erreferentziak erabiliz hizkuntza pertsonal bat sortzeagatik. Haren sorkuntza-lanak Europan, Latinoamerikan, Estatu Batuetan eta Afrikan aurkeztu dira. 2016ko azaroan *Olga Mesa y La Doble Visión* argitalpen-proiektua aurkeztu zuen, bere ibilbidearen ikuspegi panoramikoak. www.olgamesa.eu.

Francisco Ruiz de Infante multimedia-artista da, kontrolerako eta jostaketarako ikus-entzunezko makinaren eta beste material itxuraz bakunago eta egunerokoagoen arteko elkartzeko eta konfrontazioak markatutako belaunaldi batekoa. Ugariak dira haren unibertso artistikoan esparru deslokatu eta paradoxikoak, edota eraikitze bidean daudenak. Haren kontatzeko eraren oinarrian «Ibilbide labirintikoa»-ren ideia dago, oso zentzu zabalean. Nazioarteko museo askotan erakutsi ditu bere lanak. Arte performatiboen esparruan, Olga Mesarekin aritu da elkarlanean, haren *labOfilm* (2010-2012) proiektuan. Gaur egun Mesa eta Ruiz de Infante *Carmen// Shakespeare* (2012-18) eszena-, plastika- eta film-egitasmoa egiten ari dira elkarrekin. www.lillas-pastia.net.

Proklama Artiumek eta AZALAK elkarlanean antolatzen duten arte bizien inguruko egitarau sorta da
Egitarauak **10. Proklamarekin** jarraituko du 2017ko maiatzaren 11tik 14ra

Olga MESaren eta Francisco RUIZ DE INFANTEren

CARMEN // SHAKESPEARE (2012-2018)

proiektu tematikoaren inguruko oharak

Hainbat lurralde artistikoren arteko mestizaje arriskatua egin nahi duten bi artistaren arteko elkarrizketaren eta aurrez-aurrekoaren emaitza da **Carmen // Shakespeare** proiektua; xedea, berriz, istorio-sortzaile izango den aurpegi askotako objektu bat osatzea. Opera garaikide bat? Shakespeareren *Maitasun sonetoen* eta Bizeten operaren ozentasuna alderatzean indar «barroko» bat sortzen da (hitzaren jatorrizko zentzuan); mito-asmataile batekin mito bat igurtziz moldatutako altiste markets baten indarra. «Altiste» horren muina leherkorra da, eta giza-korapilo batzuk (intimo eta sozialak) eragiten, islatzen eta adierazten ditu. Ez al gara, izan ere, etorkizun zalantzarri baten beldurrean oinarritutako mundu batean bizi?

«Neure zalantza bera baino gehiago maite zaitut» (esango du Shakespearek)
«Zuk maite ez banauzu, nik maite zaitut, Eta nik maite bazaitut... Kontuz ibili» (esango du Carmenek)
«Honetaz guztiaz asperturik, nire burua erauzi nahiko nuke» (esango du Shakespearek)
«Ez, zuk ez nauzu maite... maite baninduzu nirekin joango zinateke hara» (esango du Carmenek)
«Nirekin ari al zara?» (esango du Shakespearek)
«Gehiago nahi dut; gehiago» (esango du Carmenek)
«Hobeto ikusten zaitut begiak kliskatzen ditudanean» (esango du Shakespearek)
«Txakurra eta otsoa ez dira luzaro adiskide» (esango du Carmenek)
«Zure itzalaren eraginez dira argiagoak itzalak» (esango du Shakespearek)
«Inoiz legea ezagutu gabeko bohemio bizieraren haurra da maitasuna» (esango du Carmenek)
«Zu bakarrik ez zara ezer» (esango du Shakespearek, zerura begira)
«Zu bakarrik ere ez» (esango du Carmen-ek, irribarrez)

CARMEN // SHAKESPEARE-n erakusten dugu, era kaleidoskopikoan, gure gorputzak eta gure irudiak kontrolatzen dituzten teknologiek zeharkatuta dagoela gure garaia. **CARMEN // SHAKESPEARE**-n erakusten dugu, orobat, teknologia horiek bere botere-, sedukzio-, beldur-, nahi-, lilura-, ez-ulertze-, konplizitate-, jelsia-, grina... maitasun?-harreman berriak sortzeko bidea ematen dutela.

CARMEN // SHAKESPEARE-n benetako «gudu-zelai» saihetsezin batean bizi gara. Giza-harremanen desordenaren metafora bat: ezin ulertu eta nahi gurutzatuak elikatzen dituen hainbat ikuspunturen metaketa. Han, egileak eta pertsonaiak gara aldi berean; atsedetik gabe elkar interpelatzen dugun konplize eta aurkariak, espazio-denborazko desegokitasunak ehuntzeko guk geuk eraiki dugun gailu teknologiko ezegonkor bat menderatzen ahalegintzen garenak.

CARMEN // SHAKESPEARE-ren «hesteak kanpora ateratako makina»-k inoiz ez dio irudiak eta soinuak proposatzeari uzten, denborak elkarren gainean jarriz; makinak aldatu egiten ditu hautemate-hierarkiak, eta etengailuak sortzen eta eskalak eraldatzen ditu. Makinak areagotu egiten du isla batzuen distira eta itzal guztien sakontasuna. Haren aurrean —une oro eta lekualdaketa guztietan— bere berezitasuna eta askatasuna berretsi behar ditu gorputzak. Gorputz horrek, paradoxikoki, uko egin behar dio (desiraren?) objektu izateari, biziarazten duten teknologia horien guztien aurrean.

Sei urteren epean (2012-2018) burutzea aurreikusten da **CARMEN // SHAKESPEARE** proiektu osoa. Epe horretan era askotako formatu eta denbora publikoak agertzen ari dira eta agertuko dira: lau pieza koreografo autonomo (ekitaldiak*); toki ez-konbentzionalerako eite performatiboko zerak (tabloak); ikus-entzunezko instalazioak; bideoak; Interneteko esku-hartzeak eta sorkuntza-laboretegiak (Lab_Rec direlakoak).

Une honetan, Francisco Ruiz de Infante eta Olga Mesa ikus-entzunezko erakusketa handi bat prestatzen ari dira 2018ko urtarilean Artiumen egiteko. Han, azken urteotako lanean metatutako energiak astindu eta murgiltzeko gailu bat proposatuko dute. Ikusleak ez dira handik kalterik gabe aterako.

***Carmen // Shakespeare** ekitaldiak:

1. Ekitaldia: (lainoarena) (2013), sedukzioaren inguruan
2. Ekitaldia: *Ez dagoen ekintza* (crash_test direlakoena) (2015), gatazkaren inguruan
3. Ekitaldia: *Plancton* (2016), desbideratzearen eta erresistentziaren inguruan
4. Ekitaldia: *Azken ekintza (bakarrik)* (2017-2018), heriotzaren inguruan

NARRATZAILEA: Ez dute zaugarri izateko astirik: halako izatea erabaki dute. Ez dute ia ezertarako astirik. Emakumeak esango du: denbora gutxi daukagu beharrezko gauzetarako. Gizonak esango du: hemen denbora bat hasi eta dena geratzen da.

GIZONAK: Itxaroni Itxaron pixka batean!

EMAKUMEAK: Jo ezazu PLAY

GIZONAK: Ez da PLAY jo behar, REC jo behar da.

EMAKUMEAK: Barkatu... Jo ezazu, bada, REC.

NARRATZAILEAK: 3D-ak? Dimentsioak? Desira, desira, desira? 4D-ak? Berriz ere desira? Aire, bolumena, luzera, garaiera, sakonera, laztana, indarkeria, beldurra, itxaropena, seta, espazioa, tamaina. Kontzientzia-egoera..., beste dimentsio bat?

GIZONAK: Heriotzaz ari gara, ezta?

EMAKUMEAK: Ez. Maitasunaz ari gara.

GIZONAK: Ziur al zaude? 4D nahikoa dira: hiru dimentsio espazioarentzat eta bat denborarentzat. Mugi zaitetz aurrerantz; mugi zaitetz atzerantz; zeharka ezazu... Jauzi egizu... Gal ezazu denbora!

EMAKUMEAK: Maitasuna! Espazio-denborazko irudipen bat, barruranzko bidaia baten doako ahalbidearekin. Aztoramen handiz edo aztoramenik gabe emeki galtzea. Laster! Zure txanda da orain!

GIZONAK: Ahal dudan bezala lasterka egiten dut. Jaitsi hemen! Ez dut dimentsioen arteko failetan sinesten.

EMAKUMEAK: Ziur naiz «sentipenarn mekanikan» sinets dezakezula; mugimendua ustekabeko eran sortzen den unean. Baina, kontuz: ondo egiteko ezinezko ataza batzuk betetzen saiatu beharko duzu. Maitasuna, inork bezatu ezin duen txori menderakaitza ote da?

EMAKUMEAK (*isilune baten ondoren*): Ez zaitetz koldarra izan! Begira daukazu begi beltz bat. Hona ezinezko ataza batzuk: irakur itzazu nire gogoetak, hitz egin ezazu esango dizkizudana hitzekin, abestu ezazu lo nagoen (lo zauden) bitartean, moztu itzazu azkizalaz ilunpean. Ba al dakizu? Shakespearek dio samurtasunak ez duela samurtasuna borrokatzen.

GIZONAK: Baina, heriotzaz ari gara, ala?

EMAKUMEAK: Ez; samurtasunak ez du samurtasunarekin borrokan egiten. Maitasunaz ari gara.

GIZONAK: Zuk hala badiozu...!

GIZONAK (*isilune baten ondoren*): Carmen mintzo zen, ala Shakespeare zen? Nire maitasuna indartsuagoa egiten da, ahulagoa badirudi ere. Nor mintzo da hemen?

CARMEN // SHAKESPEARE: 1. Ekitaldia (lainoarena)

Proiektuaren lehen ikuskizun koreografiko hau Marseillan sortu zen 2013an, eta Artiumen berpiztuko da Proklamaren barruan. Eremu minatu baten esperimintazioaren inguruan eratuta dago pieza eszenikoa. Bertan, tentsioz eta konplizitatez, etengailuz eta gutxi edo asko adostutako bibrazioz egindako poema baten ildaskak (errealitateak eta fikzioak lotzen dituztenak) marrazten dira. «Sedukzioa»-ren estalki tematikoaren pean, 1. Ekitaldia garrasika ukitzen dugu maitasuna (eta hartaz babesten gara). Ez ditugu behin eta berriz traditutako artelanak (Carmen?, Shakespeare?) berriz interpretatu nahi. Interpretatu baino gehiago gogora ekartzen saiatzen gara: haien tentsioak, desadostasunak, erritmoak, konkistak, obsesioak, galerak eta bertan behera uzteak... gogora ekartzen. Gorputz mitiko baten energiak gogora ekartzen, hura (haren irudia, haren arnasa, ahotsa, haragia, presentzia...) gutaz jabetu dadin. Agertokian, gizon bat eta emakume bat, segada baten barruan daude; etengabe abiarazten eta gerarazten den «makina» baten barruan. Hori da benetako hirugarren pertsonaia. Hark inposatzen dituen erritu ziklikoek (zeinetan kateatzen baitira pertsonaiak) asaldarazi egiten dituzte desira- eta botere-harremanak, jokoarenak eta manipulazioarenak.